



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko urriaren 7a

113. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru-lege proposamenak:

- 11-25/PRO-00016. Foru-lege proposamena, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiaztaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzen duena. Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa, Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek aurkeztu dute (3. or.).
- 11-25/PRO-00017. Foru-lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonak dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzko azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legea aldatzen duena. Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak aurkeztu du (7. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-25/ITP-00031. Interpelazioa, etxebizitza babestua eraikitzearen arloko politika orokorrari buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia jaunak egin du (9. or.).
- 11-25/ITP-00032. Interpelazioa, kirolean berdintasuna eta aniztasuna sustatzearen arloko politikari buruzkoa. Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egin du (9. or.).
- 11-25/ITP-00033. Interpelazioa, zintzotasunari, etika politikoari eta gardentasunari buruzkoa. Emilio Jiménez Román jaunak egin du (10. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 11-25/POR-00332. Galdera, unibertsitate-ikasketa publikoetako matrikula-datuei buruzkoa. Kevin Lucero Domingues jaunak egin du (11. or.).
- 11-25/POR-00333. Galdera, unibertsitate-laguntzei buruzkoa. Kevin Lucero Domingues jaunak egin du (11. or.).
- 11-25/POR-00334. Galdera, errepide bidezko bidaiarien hiriarteko garraio publikoko zerbitzuaren emakidak berritzei buruzkoa. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (12. or.).
- 11-25/POR-00335. Galdera, zorra barkatzeari buruzkoa. Ainhoa Unzu Garate andreak egin du (12. or.).

- 11-25/POR-00336. Galdera, paziente euskaldunentzako logopedia-arretari buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (13. or.).
- 11-25/POR-00337. Galdera, toki-entitateekin eta Gazte-informazioko Zerbitzuen Sarearekin gazteriarren arloan kolaboratzeari buruzkoa. Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egin du (13. or.).
- 11-25/POR-00338. Galdera, Osasun Departamentuak Israelgo TEVA farmazia-enpresarekin dauzkan kontratuei buruzkoa. Daniel López Córdoba jaunak egin du (14. or.).
- 11-25/POR-00339. Galdera, ingurune digitalaren eragin kaltegarriaren mende jartzetik heltzen ahal diren patologiak zuzentze aldera hartu diren edo hartuko diren neurriei buruzkoa. María Teresa Esporrín Las Heras andreak egin du (15. or.).
- 11-25/POR-00340. Galdera, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legea aldatzeari buruzkoa. Kevin Lucero Domingues jaunak egin du (15. or.).
- 11-25/POR-00341. Galdera, Guardia Zibilaren Unitate Zentral Operatiboaren txostenean agertzen diren enpresen kanpo-auditoretzari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (16. or.).
- 11-25/POR-00342. Galdera, osasun sistema publikora medikuak erakartzeko neurriei buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (17. or.).
- 11-25/POR-00343. Galdera, Ministerioak araubide erkideko autonomia-erkidegoei proposatutako zor-barkamenari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (17. or.).
- 11-25/POR-00344. Galdera, genero-indarkeriak Nafarroan duen intzidentzia dela-eta hartu beharreko neurriei buruzkoa. Isabel Olave Ballarena andreak egin du (18. or.).
- 11-25/POR-00345. Galdera, enplegu-politika aktiboari buruzkoa. María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak egin du (18. or.).
- 11-25/POR-00346. Galdera, Nafarroako Trafikoko Guardia Zibiletik Foruzaingora igarotzeko pasarela zertan den jakiteko. Emilio Jiménez Román jaunak egin du (19. or.).
- 11-25/POR-00347. Galdera, Rozalejoko markesaren jauregian paratuko diren edukiei buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (19. or.).
- 11-25/POR-00348. Galdera, adingabeen zentroiari buruzkoa. Javier Arza Porrás jaunak egin du (20. or.).
- 25-11/POR-00349. Galdera, Euskararen Nafarroako Institutuak Sakanako Mankomunitateari euskara erabiltzeko eta sustatzeko emandako diruari buruzkoa. Emilio Jiménez Román jaunak egin du (20. or.).
- 11-25/POR-00350. Galdera, PSOEn finantzaketari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (21. or.).
- 11-25/POR-00351. Galdera, araubide erkideko erkidegoei zorra barkatzeari buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (22. or.).
- 11-25/POR-00352. Galdera, Palestinaren aldeko mobilizazioei buruzkoa. Ainhoa Unzu Garate andreak egin du (22. or.).
- 11-25/POR-00353. Galdera, Parquenasaren kontratu zatikatuei buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia jaunak egin du (23. or.).
- 11-25/POR-00354. Galdera, Memoria eta Bizikidetzeta, Kanpo Ekintza eta Euskarako Departamentuak Palestinaren inguruan egindako ekintzei buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak egin du (23. or.).
- 11-25/POR-00355. Galdera, jakiteko zer egoeratan geratuko litzatekeen Nafarroako industria MITECOk Sare Elektrikoen Plangintzarako proposamena gauzatzuz gero. Miguel Garrido Sola jaunak egin du (24. or.).

B saila:
FORU-LEGE PROPOSAMENAK

11-25/PRO-00016. Foru-lege proposamena, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzen duena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 6an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintza-ekimena erabiliz, Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa, Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzen duen foru-lege proposamena aurkeztu du, eta presako prozeduraz izapidetu dadin eskatu dute.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 121. eta 168. artikuluetan ezarritakoarekin bat, ERABAKITZEN DA:

1. Agintzea Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzen duen foru-lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

2. Aipatu foru-lege proposamena presako prozeduraz izapidetzea.

3. Foru-lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 168. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta Nafarroako Gobernuari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi egunekoa dela.

Iruñean, 2025eko urriaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru-lege proposamena, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzen duena

HITZAURREA

9/2025 Foru Legea, ekainaren 30ekoa, Nafarroan etxebizitza ordainerraza izateko eskubideari buruzkoa, zeinaren bidez aldatzen baitira Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea eta uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretua, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duena, aldaketa-eragile itzela izan da Nafarroan etxebizitza babestuek esleitzeko eredu eta araubidearentzat, eta etxebizitza egoki eta ordainerraz bat eskuratzeari dagokionez munta handiko hobekuntzak ekarri ditu.

Hala ere, foru lege horrek indarra hartu ondoren, lausotasun tekniko batzuk aurkitu zaizkio, arauaren funtsezko edukia aldatzen ez badute ere haren aplikazio bete-betea zaildu egiten dutenak, batez ere etxebizitza babestuek esleitzeko prozeduren izapidetzeari dagokionez.

Aldaketa honen asmoa da, horrenbestez, desdoitasun tekniko txiki horiek zuzentzea, eta halatan esleipen-sistema berriaren implementazio egokia erraztea, berme administratibo nahiz informatiko erabatekoarekin.

Bestalde, hogeita seigarren xedapen gehigarria aldatzen da, zeinak lankidetzazko etxebizitza jasotzen baitu bizitoki-parkearen eskuraketa, erabilera eta kudeaketarako bide berri bezala, oinarritua elkarlanean, jabetza kolektiboan eta jabetza indibidualeko araubidearen ordezkari erabilera-erabilera eskubidean. Aldaketa horren helburu nagusia da etxebizitza-modalitate horrek araubide bat izan dezala, jadanik badagoen araudi bat esleitzuz horri, zuzenbide-hutsunerik ez dadin egon harik

eta modalitate horren garapen integrala eginen duen berariazko araudi bat onesten den arte.

Artikulu bakarra. Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzea.

Aldaketak edo ezabaketak egiten dira Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen honako artikulua, apartatu eta xedapen hauetan:

Bat. Aldatu egiten dira 18. artikuluko 1. apartatuko a) eta b) letrak. Honela gelditzen dira idatzita:

“a) Jomuga diren pertsonen familia-dirusarrera ponderatuak txikiagoak izatea ERREGEROSNA-Errenta Egokiagatiko Erosahalmen Nahikotasunaren Adierazlea bider 4,5 baino.

Errentamendu-araubideko etxebizitzaren kasuan, jomuga diren pertsonen familia-dirusarrera ponderatuak egon beharko dira 5.000 eurotik ERREGEROSNA-Errenta Egokiagatiko Erosahalmen Nahikotasunaren Adierazlea bider 2,5era bitarteko tartean.

Errentamendu ordainerrazeko araubideko etxebizitzaren kasuan, jomuga diren pertsonen familia-dirusarrera ponderatuak handiagoak izan beharko dira ERREGEROSNA-Errenta Egokiagatiko Erosahalmen Nahikotasunaren Adierazlea bider 2,5 baino, eta txikiagoak adierazle hori bider 4,5 baino.

b) Jomuga diren pertsonen gutxieneko dirusarrerak 19.000 eurokoak izatea jabetza-araubidean eta erabilera-lagapeneko araubidean”.

Bi. 25. bis artikulua 1. apartatua kentzen da.

Hiru. 26. artikulua h) eta i) letrak aldatzen dira. Hona haien testu berriak:

“h) Hala badagokio, sustapena kokatuta dagoen udalerriko erroldan gutxienez hiru urteko antzintasun etengabea dutenak, benetako bizilekua bertan izanda. Babes ofizialeko etxebizitzaren kasuan, horiek sustatuta daudenean udalaren titulartasuneko lurzoruetan edo sozietate publiko batek lehenago udalaren titulartasunekoak izan eta helburu honekin eskualdatuak izan ziren lurzoruetan, udalak zilegi izanen du udalerrian erroldaturiko pertsonentzat erreserbatutako etxebizitzaren kopurua erabakitzea.

i) 50 etxebizitzako edo gehiagoko sustapenetan, % 2ko erreserba bat aurreikusiko da kategoria bereziko familia ugariarentzat. Bizitokia erreserba berezi horren bitartez eskuratzen duten eskatzaileek ezin izanen dute parte hartu artikulua honen c) apartatuak aipatzen duen erreserban sartutako etxebizitzak

esleitzeko egiten den hautaketa-prozesuan, bi erreserba horiek bateraezinak direnez gero”.

Lau. 27. artikuluko 2. apartatuko b) letra aldatzen da. Honela gelditzen da idatzita:

“b) Familia-dirusarrera ponderatuak ERREGEROSNA-Errenta Egokiagatiko Erosahalmen Nahikotasunaren adierazlea bider 2,5 baino gehiagokoak dituzten eskatzaileentzat, babes ofizialeko etxebizitzaren % 70 eta prezio tasatukoaren % 80”.

Bost. 28. artikuluko 1. apartatuko a) letra aldatzen da. Honela gelditzen da idatzita:

“a) Zazpi puntu, eskaera sinatzen duen eskatzaile bakoitzeko eta haien familia-unitateen kide bakoitzeko. Apartatu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, eskatzailearen familia-unitatearen parte izanen dira ondorengo ahaideak, haien gaineko guraso-ahala eskatzailearen esku baldin badago, partekatua denean ere”.

Sei. 29. artikuluko 1. apartatuko g) letra aldatzen da. Honela gelditzen da idatzita:

50 etxebizitzako edo gehiagoko sustapenetan, % 2ko erreserba bat aurreikusiko da kategoria bereziko familia ugariarentzat. Bizitokia erreserba berezi horren bitartez eskuratzen duten eskatzaileek ezin izanen dute parte hartu artikulua honen c) apartatuak aipatzen duen erreserban sartutako etxebizitzak esleitzeko egiten den hautaketa-prozesuan, bi erreserba horiek bateraezinak direnez gero”.

Zazpi. 30. artikulua aldatzen da. Honela gelditzen da idatzita:

“30. artikulua. Erreserba berezietarako baremoa.

1. 29.1 artikuluan aipaturiko erreserba berezietako bakoitzaren barrenean jasota dauden errentamendu-araubideko eta errentamendu ordainerrazeko araubideko etxebizitza babestuak foru lege honen 28. artikuluan ezarrita dagoen puntuazio-baremoa aplikatuz izanen dira esleituak.

2. Hala ere, 28. artikulua 2. apartatuak xedatzen duena ezin izanen da aplikatu ez eta puntuatu ere errentamenduko eta errentamendu ordainerrazeko araubideetako etxebizitza babestuak esleitzeko”.

Zortzi. Hamabosgarren xedapen iragankorreko 6. apartatuko b) letra aldatzen da. Honela gelditzen da idatzita:

“b) Amiantodun elementuak kendu behar diren kasuetan, zilegi izanen da laguntza gehigarri bat ematea, amianto-hondakinak enpresa baimenduek kendu, manipulatu, garraiatu eta kudeatzearen

ondoriozko kostuei aurre egitekoa. Laguntza horren zenbatekoa 1.000 eurokoa izanen da etxebizitza bakoitzeko, eta gehieneko muga 18.000 eurokoa izanen da, eraberritzen den eraikin bakoitzeko.

Zilegi izanen da aipaturiko zenbatekoak eta portzentajea aldatzea, etxebizitzaren arloan esku-mena duen departamentuko kontseilariaren foru aginduz.

Salbuespen gisa, foru lege honek indarra hartzen duen unean eraikinaren ingurutzailer termikoaren hobekuntzagatiko birgaitze babestuko behin-behineko kalifikazioa emana daukaten espedienteen sustatzaileek ez badute behin betiko kalifikazioa eskatu, zilegi izanen dute eskatzea, lege honek indarra hartzen duenetik hiru hilabeteko gehieneko epean, onar dakien, kasua bada, a) letran zehaztutako portzentaje berria eta gehieneko dirulaguntza. Horretarako, frogatu beharko dute epe barrenean dirulaguntza-eskaera bat aurkeztu izana, ez dena ez onetsia ez errefusatua izan, ez eta horretan atzera egin ere, honako deialdi hauetakoren baterako:

– Erronka demografikoko udalerrietan dauden eraikinetan energia-birgaitze jarduketak egiteko dirulaguntzen deialdia, PREE 5000 programa, 691/2021 Errege Dekretuaren arabera, Etxebizitzako zuzendari nagusiaren azaroaren 3ko 2723/2021 Erabakiz onetsia.

– Badauden eraikinetan energia-birgaitze jarduketak egiteko dirulaguntzen "Eraikinak, Susperitze eta Erresilientzia Mekanismoa 2023" deialdia, Etxebizitzako zuzendari nagusiaren abenduaren 19ko 901/2022 Erabakiz onetsia".

Bederatzi. Hogeita batgarren xedapen iragankorra aldatzen da. Honela gelditzen da idatzita:

"Hogeita batgarren xedapen iragankorra. Etxebizitza Babestuaren Eskatzaileen Erroldaren bitarteko etxebizitza-esleipenerako sistemen eta prozeduren aplikazio-eguna".

Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen III. tituluan jasotzen diren xedapen berriak aplikatuko zaizkie etxebizitza babestuak esleitzeko 2026ko martxoaren 1etik aurrera hasiak diren prozedurei, zein ere den kasuko espedienteak behin-behineko kalifikazioa lortzen duen eguna. Hona salbuespenak:

– Kategoria bereziko familia ugarietzako % 2ko erreserbak nahitaezkoak izanen dira behin-behineko kalifikazioa 2026ko irailaren 1etik aurrera eskatzen duten proiektuentzat bakarrik.

– Behin-behineko kalifikazioa 2026ko irailaren 1a baino lehenago lortu duten errentamendu-arau-

bideko etxebizitzetarako espedientei buruzko prozeduretan, zeinetan erreserba-portzentajea, udalean erroldaturikoentzako, handiagoa baita legez ezarritakoa baino, esleipena eginen da lorturiko behin-behineko kalifikazioan agertzen diren portzentajeak errespetatuz".

Hamar. Hogeita bigarren xedapen iragankorreko 2. apartatuko b) letra aldatzen da. Honela gelditzen da idatzita:

"b) Errentamendu ordainerrazeko araubidekoztat kalifikaturiko etxebizitzetarako espedienteetako esleipen-prozedurak 2026ko martxoaren 1etik aurrera hasi ahalko dira.

2026ko martxoaren 1etik irailaren 1era bitartean, esleipen horiek eginen dira errentamendu-araubideko etxebizitza babestuentzat lehenagoko araudiak aurreikusitako erreserbak, baremoa eta prozedura errespetatuz, baina halere aplikatuz foru lege honen 18. artikulua ezartzen dituen ahalmen ekonomikoari buruzko irizpideak".

Hamaika. Hogeita seigarren xedapen gehigarria kentzen da.

Hamabi. Hogeita zazpigarren xedapen iragankor berri bat sortzen da, honako eduki honekin:

"Hogeita zazpigarren xedapen iragankorra. Lankidetzako etxebizitza.

1. Foru lege honen ondorioetarako, lankidetzako etxebizitzat zatituz ulertzen da familia anitzeko eraikin batez edo gehiagoz edo etxebizitza familia-bakarrez osaturiko bizitoki-multzoa, bizitoki-unitate bat osatzen duenean eta haren jabari-titulartasuna etxebizitza-kooperatiba batena denean, halako moldez non kooperatibaren bazkideek erabilera-eskubide banakatuak baitituzte bizitoki-unitate bakoitzaren gain.

2. Honako hauek osatuko dute lankidetzako etxebizitza:

a) Bazkideei beren erabilerarako lagatako etxebizitza edo espazio pribatiboak.

b) Bizitoki-multzoaren elementu amankomunak, Kode Zibilaren 396. artikulua arabera.

c) Erkidego-erabilerarakoak eta lankidetzako zerbitzuen ematerakoak diren gunek eta espazio konpartituak.

3. Lankidetzako etxebizitza arautuko duen berriazko araudi bat onesten ez den bitartean, aplikatu beharrekoa izanen da Kooperatibei buruzko uztailaren 16ko 27/1999 Legearen I. titulua X. kapituluaren 3. atalean xedatzen dena eta Nafarroako Foru Komunitateko kooperatiba-alorreko araudi indarduna.

4. Zilegi izanen da berariazko dirulaguntzak ezartzea etxebizitza-kooperatiben edo kooperatiba-federazioen eraketa sustatzeko, haiek antolatuak eta ugarituak izateari laguntzeko, eta higiezinak lankidetzazko etxebizitzetarako erabiliak izateko proiektuak, sustapena edo birgaikuntza egin daitezzen finantzatzeko.

Halaber, zilegi izanen da sustapen fiskaleko beste neurri batzuk aurreikustea eta jadanik badauden dirulaguntzen aplikazioa aipatu jarduketan sustapenera hedatzea”.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan eta biharamunean hartuko du indarra.

Hori ezertan galarazi gabe, foru lege honen lehen apartatutik zazpigarrenera bitartekoek 2025eko abenduaren 1etik aurrera izanen dute eragina.

11-25/PRO-00017. Foru-lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonen dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzko azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legea aldatzen duena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025ko urriaren 6an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobezeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintza-ekimena erabiliz, Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonen dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzko azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legea aldatzen duen foru-lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 168. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bazarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonen dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzko azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legea aldatzen duen foru-lege proposamena.

2. Foru-lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 168. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2025eko urriaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru-lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonen dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzko azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legea aldatzen duena

HITZAURREA

Nafarroan, osasungintza zertan eta ekitate, unibertsaltasun, zerbitzu-kalitate eta herritarren parte-hartzearen printzipioetan dago oinarrituta. Hori horrela, martxoaren 29ko 33/2023 Foru Dekretuak arautzen du prestazio ortoprotesikoa (kanpoko ortoprotesien modalitatea), eta sortzen du Nafarroan prestazio ortoprotesikoa kudeatzen laguntzen duten establezimenduen erregistroa.

Dekretu horren indar-hartzeak agerian utzi ditu haren aplikazio praktikoaren zailtasun zenbait,

zuzen-zuzenean eragiten duten ezinbestekotzat jotzen diren produktu ortoprotesikoen eskuragarritasunean. Produktu horiek erabakigarri gertatzen dira autonomia pertsonalari eusteko, aukera-berdintasuna bermatzeko eta desgaitasuna dutenek eta sostengu teknikoaren beharrea dauden pertsonen bizitza sozialean parte-hartze erabatekoa izan dezaten faboratzeko. Murrizgarri horiek behin eta berriro izan dira salatuak gizarte-entitateen, paziente-elkarteen eta sektoreko profesionalen aldetik.

Hertsiki araugintzari buruzkoak diren zertzeladez harago, egoera honek aiurri sozial eta etikoko erronka bat pizten du: ziurtatu behar da Nafarroako osasungintzak erantzun bizkorra, ekitatiboa eta herritarren egiazko premiei egokitu eskain dezala. Ortoprotesia ezin da soil-soilik baliabide tekniko gisa irudikatu; horrez gain, giltzarria da inklusiorako, ahalduntzerako eta oinarritzko eskubideen benetako egikaritzerako.

Horregatik guztiagatik, proposatzen da xedapen gehigarri berri bat erants dakiola azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legeari, Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonen dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzkoari. Xedapen horrek 33/2023 Foru Dekretua aldatzera behartuko du, ezinbesteko produktu ortoprotesikoetarako irispide egiazkoa eta diskriminaziorik gabekoa bermatze aldera, bai eta paziente-elkarteek, gizarte-entitateek eta zentro ortoprotesikoen berrikuspen-prozesu osoan parte har dezaten ziurtatze aldera ere.

Artikulu bakarra. Xedapen gehigarri berri bat eranstean zaio azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legeari, Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonen dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzkoari:

“Hirugarren xedapen gehigarria. Prestazio ortoprotesikoa arautzen duen martxoaren 29ko 33/2023 Foru Dekretua partaidetzaz berrikustea.

Nafarroako Gobernuak, foru lege honen indaraldia hasten denetik sei hilabeteko gehieneko epean, 33/2023 Foru Dekretua aldatuko du, horren aplikazioa dela-eta prestazio ortoprotesikoetarako irispidean detektatu diren murriztapen, mugapen eta zailtasunak konpontzeko xedez, eta zeregin horretan zinezko parte-hartzea izanen dutelarik pazienteen elkarrekin, desgaitasunaren alorreko ordezkartasuna duten gizarte-entitateek eta zentro ortoprotesiko laguntzaileek. Foru Dekretuaren aldatetarako honako hauek bermatuko ditu: a) erabil-

tzaileak modua izan dezala gehieneko finantzatzenbatekoaren eta kasuko produktuak duen salmenta-prezioaren arteko aldea ordaintzeko, b) prestazio-eskuratzea hobetzea, Oinarrizko Osasun Laguntzako sendagilearen preskripzio-ahalmenari dagokionez, preskripzio-egile den medikuak produktuei horiek pazientearenganatuak izan ondoren oniritzia eman behar izateari dagokionez, produktu batzuk preskripzio berezikotzat deklaratzeari dagokionez eta produktu-moten arteko bateraezintasunak ezartzeari dagokionez; eta c) ortoprotesi-produktuak berritzeko eta konpontzeko prozedurak

sinplifikatu eta hobetzea, itzarote-denborak eta administrazio-zamak murriztuz”.

Xedapen indargabetzailea. Arau-indargabetzea.

Indarrik gabe uzten dira foru lege honetan xedatutakoarekin kontraesanean dauden maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak.

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-25/ITP-00031. Interpelazioa, etxebizitza babestua eraikitzearen arloko politika orokorrari buruzkoa

JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egindako interpelazioa, etxebizitza babestua eraikitzearen arloko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko urriaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, ikusita etxebizitza babestua eskaria asegabe dagoela eta ikusita Nafarroako Gobernua zer ari den egiten, etxebizitza babestua eraikitzearen arloko politika orokorrari buruzko interpelazio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Iruñean, 2025eko irailaren 24an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

11-25/ITP-00032. Interpelazioa, kirolean berdintasuna eta aniztasuna sustatzearen arloko politikari buruzkoa

FRANCISCO JAVIER TRIGO OUBIÑA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egindako interpelazioa, kirolean berdintasuna eta aniztasuna sustatzearen arloko politikari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko urriaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioko Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, kirol arloko inklusioaren eta kirolean berdintasuna eta aniztasuna sustatzearen arloan Nafarroako Gobernuak darabilen politika orokorrari buruzko interpelazio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Kirolean, inklusioa funtsezkoa da gizarte ekitiboagoa eta bidezkoagoa eraikitzeko. Desgaitasuna duten eta ez duten pertsonen elkarrekin parte hartzeko aukera ematean, oztopoak kentzen dira eta ingurunea errespetuzkoa eta ulermenezkoa izatea sustatzen da.

Kirol inklusiboa egiteak kirolarien bizi-kalitatea hobetzeaz gain, erkidego osoa aberasten du. Funtsezkoa da halako ekimenak sustatzen jarraitzea, joko-zelaian denek leku bat izan dezaten bermatzeko.

Zeregin horretan, Nafarroako Gobernuak erabakitasun handiagoa erakutsi dezake eta erakutsi behar du, eta horregatik aurkezten dugu interpelazio hau.

Iruñean, 2025eko urriaren 2an

Foru parlamentaria: Francisco Javier Trigo Oubiña

11-25/ITP-00033. Interpelazioa, zintzotasunari, etika politikoari eta gardentasunari buruzkoa

EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak egindako interpelazioa, zintzotasunari, etika politikoari eta gardentasunari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko urriaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Talde Mistoko foru parlamentari eta VOXeko kide Emilio Jiménez Románek honako interpelazio hau aurkezten du, 2025eko urriaren 9ko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko:

2025eko urrian gaudenez, eta Nafarroako Gobernua eta haren presidentea ustezko irregulartasunak direla-eta zenbait kasutan nahasita daudela jakin dugunez, zintzotasunari, etikari, politikari eta gardentasunari buruzko interpelazio hau egiten diogu Nafarroako Gobernuari.

Iruñean, 2025eko urriaren 2an

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

F saila:
GALDERAK

11-25/POR-00332. Galdera, unibertsitate-ikasketa publikoetako matrikula-datuei buruzkoa*KEVIN LUCERO DOMINGUES JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Kevin Lucero Domingues jaunak egindako galdera, unibertsitate-ikasketa publikoetako matrikula-datuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urriaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Kevin Lucero Domingues jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Duela gutxi jakin dugu Nafarroa dela unibertsitate-ikasketa publikoetako izen-ematea gehien hazi den erkidegoa: % 27 azken 5 urteotan. Departamentuak zer balorazio egiten du datu horiei buruz?

Iruñean, 2025eko irailaren 30ean

Foru parlamentaria: Kevin Lucero Domingues

11-25/POR-00333. Galdera, unibertsitate-laguntzei buruzkoa*KEVIN LUCERO DOMINGUES JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Kevin Lucero Domingues jaunak egindako galdera, unibertsitate-laguntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urriaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Kevin Lucero Domingues jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer unibertsitate-laguntza ematen dizkie ikasle nafarrei?

Iruñean, 2025eko irailaren 30ean

Foru parlamentaria: Kevin Lucero Domingues

11-25/POR-00334. Galdera, errepide bidezko bidaiarien hiriarteko garraio publikoko zerbitzuaren emakidak berritzeari buruzkoa

MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galdera, errepide bidezko bidaiarien hiriarteko garraio publikoko zerbitzuaren emakidak berritzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urriaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendiak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zertan da errepide bidezko bidaiarien hiriarteko garraio publikoko zerbitzuaren emakidak berritzea? Nafarroako Gobernuak zer denbora-aurreikuspen darabil emateke dauden emakida horietako bakoitza berritzeari dagokionez?

Iruñean, 2025eko irailaren 30ean

Foru parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

11-25/POR-00335. Galdera, zorra barkatzeari buruzkoa

AINHOA UNZU GARATE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Garate andreak egindako galdera, zorra barkatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urriaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Garate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko lehendakariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gobernuko lehen lehendakariorde eta Ogasuneko ministro María Jesús Monterok bermatu du Estatuak gainontzeko autonomia-erkidegoen zorra bere gain hartzeak ez duela Nafarroan eraginik izanen, nahiz eta barkamen hori arautuko duen legean hori ez den esplizituki jasoko. Nafarroako Gobernuko lehendakariak zer balorazio egiten du iragarpen horri buruz?

Iruñean, 2025eko irailaren 30ean

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Gárate

11-25/POR-00336. Galdera, paziente euskaldunentzako logopedia-arretari buruzkoa

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak egindako galdera, paziente euskaldunentzako logopedia-arretari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urriaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikita dagoen foru-parlamentari Txomin González Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Aurreko legegintzaldian, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko logopedia-arretari buruzko mozio bat onetsi zen Nafarroako Parlamentuan. Mozioak bi puntu zituen:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du euskararen eskakizuna derrigorrezkoa izan dadin Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko plantilla organikoan dauden logopeda lanpostuetako batean, gutxienez ere, euskaldunei osasun-laguntza hori eman ahal izango zaiela bermatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du euskararen eskakizuna duen plaza bat sar dezan Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko logopedia espezialitaterako Lan Eskaintza Publikoko hurrengo deialdian. Eta bermatu dezan beti egongo dela euskararen behar besteko prestakuntza duen pertsona bat logopeda plaza batean, unitate horretako langileen artean, plaza bere jabetzakoa izan edo aldi baterako kontratatuta egonda ere".

Bi proposamenetako bat ere ez da bete.

Horri buruz, parlamentari honek ondoko galdera egin du:

Osasun Departamentuak nola bermatuko du Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan artatu beharreko paziente euskaldunei logopedia-arreta ematea?

Iruñean, 2025eko urriaren 1ean

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

11-25/POR-00337. Galdera, toki-entitateekin eta Gazte-informazioko Zerbitzuen Sarearekin gazteriaren arloan kolaboratzeari buruzkoa

MIREN ITXASO SOTO DÍAZ DE CERIO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egindako galdera, toki-entitateekin eta Gazte-informazioko Zerbitzuen Sarearekin gazteriaren arloan kolaboratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urriaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilari Begoña Alfaro García andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Legegintzaldiaren erdia joan da, eta, denbora honetan, hainbat ekintza jarri dira abian gazteriarren arloan, askotariko esparruetan. Horregatik, kontseilariari honako hau galdetzen diogu: zer balorazio egiten du zure departamentuak gazteriarren arloan toki-erakundeekin eta Gazte-informazio Zerbitzuen Sarearekin gazteriarren arloan lankidetzan egindakoari buruz?

Iruñean, 2025eko urriaren 1ean

Foru parlamentaria: Itxaso Soto Díaz de Cerio

11-25/POR-00338. Galdera, Osasun Departamentuak Israelgo TEVA farmazia-enpresarekin dauzkan kontratuei buruzkoa

DANIEL LÓPEZ CÓRDOBA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Daniel López Córdoba jaunak egindako galdera, Osasun Departamentuak Israelgo TEVA farmazia-enpresarekin dauzkan kontratuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urriaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Daniel López Córdoba jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osasuneko kontseilariak urriaren 9ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

TEVA farmazia-enpresa medikamentuak eta farmazia-produktuak fabrikatzen eta saltzen dituen enpresa da. Haren izena sektoreko beste konpainia farmazeutiko batzuen bezain ezaguna ez bada ere, benetako farmazia-erraldoia da, batez ere medikamentu generikoen eremuan. Baina, batez ere, TEVA Israelgo enpresa bat da, hainbat aldiz salatua eta kondenatua izan den munduan ustelkeriazko jokabideak izateagatik, eta, gainera, behin baino gehiagotan salatua izan da Israelgo okupazioaren abantailak, monopolioa eta palestinarren esplotazioa aprobetxatu dituelako, edo Palestinan bere farmakoak merkatuko prezioaren ginetik saldu dituelako, eta, azken batean, Palestinan bizitzen ari den apartheid erregimena ahalbidetzen duelako. Hori dela-eta, honako galdera hau egiten dugu:

Zertan dira Nafarroako Gobernuako Osasun Departamentuak Israelgo TEVA farmazia-enpresarekin dituen kontratuak?

Iruñean, 2025eko urriaren 2an

Foru parlamentaria: Daniel López Córdoba

11-25/POR-00339. Galdera, ingurune digitalaren eragin kaltegarriaren mende jartzetik heltzen ahal diren patologiak zuzentze aldera hartu diren edo hartuko diren neurriei buruzkoa

MARÍA TERESA ESPORRÍN LAS HERAS ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Esporrín Las Heras andreak egindako galdera, ingurune digitalaren eragin kaltegarriaren mende jartzetik heltzen ahal diren patologiak zuzentze aldera hartu diren edo hartuko diren neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urriaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Maite Esporrín Las Heras andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nerabeen Medikuntzako Espainiako Elkartek eta Espainiako Pediatria Elkarteko Osasuna Sustatzeko Batzordeak alerta bat igorri diete gurasoei eta tutoreei, ikusi baitute areagotu egin direla txat funtzioa eta horren bidez sortzen diren interakzioak ahalbidetzen dituzten bideojoko-plataformen erabilerarekin lotutako sintoma kezkarriak dituzten haur eta nerabeen kasuak.

Detektatu al da horrelako arazorik Nafarroan, eta, hala bada, zer neurri hartu dira edo hartuko dira ingurune digitalarekiko esposizio kaltegarriaren ondoriozko patologiak zuzentzeko?

Iruñean, 2025eko urriaren 2an

Foru parlamentaria: Maite Esporrín Las Heras

11-25/POR-00340. Galdera, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legea aldatzeari buruzkoa

KEVIN LUCERO DOMINGUES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Kevin Lucero Domingues jaunak egindako galdera, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legea aldatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urriaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Kevin Lucero Domingues

jaunak, Parlamentuko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Joan den apirilean, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen erreforma sustatu zuen Nafarroako Gobernuak.

Bestalde, Gardentasunaren Kontseiluak foru legea aldatzearen aldeko irizpena eman zuen.

Zertan da Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen erreforma?

Iruñean, 2025eko urriaren 2an

Foru parlamentaria: Kevin Lucero Domingues

11-25/POR-00341. Galdera, Guardia Zibilaren Unitate Zentral Operatiboaren txostenean agertzen diren enpresen kanpo-auditoretzari buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Guardia Zibilaren Unitate Zentral Operatiboaren txostenean agertzen diren enpresen kanpo-auditoretzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urriaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Lehendakari zaren aldetik, ekainaren 12an pertsonalki konprometitu zinen UCOn txostenean agertzen diren enpresei esleitutako eta haiekin kontratatutako obra publikoak aztertzeko kanpo-auditoria bat egin dadin. Gobernuak eskatu al du kanpo-auditoria hori?

Iruñean, 2025eko urriaren 2an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-25/POR-00342. Galdera, osasun sistema publikora medikuak erakartzeko neurriei buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, osasun sistema publikora medikuak erakartzeko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urriaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer neurri berritzaile bultzatu dituzue Nafarroan medikuak gure osasun-sistema publikora erakartzeko?

Iruñean, 2025eko urriaren 2an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-25/POR-00343. Galdera, Ministerioak araubide erkideko autonomia-erkidegoei proposatutako zor-barkamenari buruzkoa

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak egindako galdera, Ministerioak araubide erkideko autonomia-erkidegoei proposatutako zor-barkamenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urriaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioaren eledun José Javier Esparza Abaurrea jaunak honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zure gobernuak zer eskaera zehatz egingen du Nafarroak kalterik izan ez dezan baldin eta Ministerioak araubide erkideko autonomia-erkidegoen zorra barkatzeko proposamena gauzatzen bada?

Iruñean, 2025eko urriaren 2an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

11-25/POR-00344. Galdera, genero-indarkeriak Nafarroan duen intzidentzia dela-eta hartu beharreko neurriei buruzkoa

ISABEL OLAVE BALLARENA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Olave Ballarena andreak egindako galdera, genero-indarkeriak Nafarroan duen intzidentzia dela-eta hartu beharreko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urriaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Isabel Olave Ballarena andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilariak ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer neurri berri hartuko du genero-indarkeriak Nafarroan duen intzidentzia lehengoratzeko?

Iruñean, 2025eko urriaren 2an

Foru parlamentaria: Isabel Olave Ballarena

11-25/POR-00345. Galdera, enplegu-politika aktiboari buruzkoa

MARÍA ARANZAZU BIURRUN URPEGUI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak egindako galdera, enplegu-politika aktiboari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urriaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Arantza Biurrun Urpegui andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak 2025eko urriaren 9ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Joan den astean enpleguari buruz ezagutu genituen datuek berresten dute Nafarroako lan-merkatuaren dinamismoa eta hazkunde ekonomikoa, eta hori ez da kasualitatez gertatzen; aitzitik, oso lotuta dago garatzen ari diren politika aktiboekin.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dugu:

Zer enplegu-politika aktibo ari dira garatzen langabeentzat nahiz Nafarroako enpresa-sarea osatzen duten enpresentzat?

Iruñean, 2025eko urriaren 2an

Foru parlamentaria: Arantza Biurrun Urpegui

11-25/POR-00346. Galdera, Nafarroako Trafikoko Guardia Zibiletik Foruzaingora igarotzeko pasarela zertan den jakiteko

EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak egindako galdera, Nafarroako Trafikoko Guardia Zibiletik Foruzaingora igarotzeko pasarela zertan den jakiteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urriaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

2025eko urriaren 9ko Osoko Bilkurarako galdera arrunta:

Nafarroako Gobernuko lehendakaria:

Zertan da Nafarroako Trafikoko Guardia Zibiletik Foruzaingora igarotzeko pasarela?

Iruñean, 2025eko urriaren 2an

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

11-25/POR-00347. Galdera, Rozalejoko markesaren jauregian paratuko diren edukiei buruzkoa

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak egindako galdera, Rozalejoko markesaren jauregian paratuko diren edukiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urriaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Asiain Torresek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilari Ana Ollo Hualde andreak urriaren 9ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Rozalejoko markesaren eraikineko obrak amaitzear daude. Ziurrenik, azaroan, eta horren ondoren, logikoa denez, eraikina "jantzi" beharko da. Hori 2026. urtearen hasieran eginen litzateke eta, beraz, heldu den urtearen erdialdean martxan egon liteke.

Horregatik, Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariari galdetzen diogu: zer eduki paratuko dira Rozalejoko markesaren jauregian?

Iruñean, 2025eko urriaren 2an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

11-25/POR-00348. Galdera, adingabeen zentroei buruzkoa*JAVIER ARZA PORRAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Arza Porrás jaunak egindako galdera, adingabeen zentroei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urriaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Arza Porrás jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakari María Chivite Navascués andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Nafarroako Gobernuaren betebeharra da, bai eta lehen mailako erronka ere, familia-babesik gabeko neska-mutikoei eta nerabeei behar beza-

lako harrera eta babesa ematea. Adingabe horien babesa ez da soilik zentroetan gertatzen, gizarte osoak eman behar baitu babes hor; lehenik eta behin, eragile politikoei, izan ere:

- Zentro horien aurkako kontzentrazioak deitzea babesgabetzea da, adingabe horiek gaizki tratatzea da.

- Mezu alarmistak zabaltzea zentro horiek kokatzen diren herri eta auzoetan beldurra sortzeko, babesgabetzea ere bada; adingabe horiek gaizki tratatzea ere bada.

- Adingabeak hartzeko sistema indartzen laguntzen duten politikak abian jar daitezten blokeatzea ere adingabeak babesgabetzea da, eta gaizki tratatzea ere bada.

Horregatik guztiagatik, honako hau galdetzen dugu: zure gobernuak nola egingen die aurre mota horretako diskurtso eta praktika politikoei, eta nola sustatuko du gizarte osoaren lankidetzeta (herritarak, elkarteak, erakunde publikoak, alderdi politikoak) haur eta nerabe horien harreran eta babesean?

Iruñean, 2025eko urriaren 2an

Foru parlamentaria: Javier Arza Porrás

25-11/POR-00349. Galdera, Euskararen Nafarroako Institutuak Sakanako Mankomunitateari euskara erabiltzeko eta sustatzeko emandako diruari buruzkoa*EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak aurkeztutako galdera, Euskararen Nafarroako Institutuak Sakanako Mankomunitateari euska-

ra erabiltzeko eta sustatzeko emandako diruari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urriaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Gaurkotasun handiko galdera, 2025eko urriaren 9ko Osoko Bilkurarako

Nafarroako Gobernuko Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilaria:

Departamentuko arduradun nagusia eta Nafarroako Gobernuko kidea zaren aldetik, ba al zene-

kien Euskararen Nafarroako Institutuak Sakanako Mankomunitateari euskara erabiltzeko eta sustatzeko emandako diruaren parte bat Euskal Udalekuak erakundeak Bernedon, Abaigarren eta Goñin antolatutako kanpamentuak diruz laguntzeko erabili dela?

Iruñean, 2025eko urriaren 3an

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

11-25/POR-00350. Galdera, PSOEn finantzaketari buruzkoa

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, PSOEn finantzaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urriaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra (PPN) talde parlamentarioaren eledun Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak urriaren 9ko Osoko Bilkuran erantzuteko:

Chivite andrea, Guardia Zibilaren Unitate Zentral Operatiboak PSOEn finantzaketan egon zitezkeen irregulartasunei buruz egindako azken txostenen berri izan ondoren:

Ziurta al dezakezu, erabat, Nafarroako Gobernutik edo foru-entitate publikoetatik heldu den euro bakar bat ere ez dela joan, zuzenean edo zeharka, PSOEn edo haren lurralde-egituren finantzaketara?

Iruñean, 2025eko urriaren 5ean

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

11-25/POR-00351. Galdera, araubide erkideko erkidegoei zorra barkatzeari buruzkoa

LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak aurkeztutako galdera, araubide erkideko erkidegoei zorra barkatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urriaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagastik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Lehen lehendakariorde eta Ogasuneko ministro María Jesús Monterok joan den astean adierazi zuen akordio bat dagoela Nafarroako Gobernuarekin Foru Komunitateak bere gain har ez dezan araubide erkideko erkidegoei Estatuak barkatuko dien zorraren kostuaren zati bat.

Zer esparrutan egingen da kasuko negoziazioa Estatuak Gobernuarekin eta noiz eta zer zenbatekotan aurreikusten da murriztea Nafarroak Estatuari egin beharreko ekarpen ekonomikoa?

Iruñean, 2025eko urriaren 5ean

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

11-25/POR-00352. Galdera, Palestinaren aldeko mobilizazioei buruzkoa

AINHOA UNZU GARATE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Garate andreak aurkeztutako galdera, Palestinaren aldeko mobilizazioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urriaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ainhoa Unzu Garate andreak, Legebiltzarreko Erregelamendua ezarritakoaren babesean, gaurkotasan handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak 2025eko urriaren 9ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer balorazio egiten du Nafarroako Gobernuak Palestinaren aldeko mobilizazioak direla-eta?

Iruñean, 2025eko urriaren 6an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Gárate

11-25/POR-00353. Galdera, Parquenasaren kontratu zatikatuei buruzkoa*JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIAIN LACASIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia jaunak aurkeztutako galdera, Parquenasaren kontratu zatikatuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urriaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia jaunak gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuko lehendakariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Neurriren bat erabaki duzu edo hartuko duzu eraikuntza-enpresa jakin bati mesede egiten dioten Parquenasaren kontratu zatikatuak direla-eta?

Iruñean, 2025eko urriaren 6an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia

11-25/POR-00354. Galdera, Memoria eta Bizikidetzaren, Kanpo Ekintza eta Euskarako Departamentuak Palestinaren inguruan egindako ekintzei buruzkoa*PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak aurkeztutako galdera, Memoria eta Bizikidetzaren, Kanpo Ekintza eta Euskarako Departamentuak Palestinaren inguruan egindako ekintzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urriaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Pablo Azcona Molinet jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilari Ana Ollo Hualde andreak urriaren 9ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Larunbat honetan, Nafarroak berriro hartu zuen manifestazio jendetsu bat, zeinak beste behin erakutsi baitzuen nafarrek Palestinari ematen dioten babesa eta elkartasuna. Aste honetan, gainera, Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordeak Raji Sourani abokatua hartuko du, zeina, iaz bezala, zurekin bilduko baita. Horregatik galdetu nahi dizugu: departamentua zer ari da egiten arlo horretan?

Iruñean, 2025eko urriaren 6an

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

11-25/POR-00355. Galdera, jakiteko zer egoeratan geratuko litzatekeen Nafarroako industria MITECOk Sare Elektrikoen Plangintzarako proposamena gauzatuz gero

MIGUEL GARRIDO SOLA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Garrido Sola jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zer egoeratan geratuko litzatekeen Nafarroako industria MITECOk Sare Elektrikoen Plangintzarako proposamena gauzatuz gero.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urriaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Miguel Garrido Sola jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariak 2025eko urriaren 9ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Zer egoeratan geratuko litzateke Nafarroako industria MITECOk 2025-2030 aldirako Sare Elektrikoen Plangintza berrirako planteatutako agertokia gauzatuz gero?

Iruñean, 2025eko urriaren 6an

Foru parlamentaria: Miguel Garrido Sola